



## Mahai Negoziatzailea eta beste gai batzuk.

### **Pertsonal kudeaketako langileen egutegia eta ordutegia:**

Sindikatuaren eta Enpresaren arteko adostasun maila altua da. Enpresak egindako proposamenari ekarpenak egin dizkiogu eta bere erantzunaren zain gaude. Honek, azkenean **ez du baldintzatuko negoziazio hau lan hitzarmeneko beste atalekin**. Beraz, aurreikusten da 2016an adostuko duguna indarrean egon ahal izango dela.

Haurreskolak Partzuergoan **lanean hasiko diren langile berriei, mediku azterketa** egingo zaie lehenengo kontratu luzea hartzen dutenean. Izan ere, Mutualiak aholkatu dio Enpresari horrela egitea.

### **Lanpostuen Zerrenda (LZ):**

Enpresak bere proposamena aurkeztu digu eta honekin batera bere asmoak Zuzendaritza Batzordera eramateko:

- Errealitatera hurbiltzeko asmoarekin LZ egiteko ratioen aldaketa proposatzen digu (hezitzaile bat eta erdi gelako jarri orde, gela beteta dagoenean, 2 hezitzaile jartzea, hain zuzen ere). Lanpostuen kopurua berdin mantenduko litzateke datorren ikasturterako. Baina aldaketa hau etorkizunean esanguratsua izan ahal da, haurreskoletan beteta dauden gela kopurua urtean zehar handitzen baita. Eusko Jaurlaritzak, Lanpostuen kopuruaren arabera, kalkulatzen du Enpresari eman behar dion dirua. Eta azken honek aldaketa honekin proposatzen ditu lotzea haurreskolako diru sarrerak eta matrikulazio datuak.
- Prozesu honekin ere Lep arteko bakanteen identifikazioa egin nahi du Enpresak. Horrela LAL bat gauzatu ahal izateko hutsune legal batzuei konponbidea eman ahal izango lioke.

Enpresak eskatzen digu iritzia jarri zuen adabakia kentzeko:

- Azken bi urteetan matrikulazio jaitzieraren ondorioz, uztaileko esleipenetan eskaini diren lanpostu asko ez dira bakanteak izan (ordezkatu gabeko eszedentziak, amatasunak...; hau da, errealak ez diren lanpostuak). Lep arteko kontratua zuten hezitzaileak bere lanpostua amortizatua egonez gero, mugitu behar izan dira. Lep arteko hauek haien bakantea identifikatu gabe zutenez, ezin izan dira bueltatu bere aurreko lanpostura. Honek disfuntzioak sortu ditu EHAA agertzen den LZ eta Funtzionamendurako erabiltzen den LZren artean. Gai hau hausnartzen ari gara oraindik.

**Langile guztien onurarako,  
bidezkoa den araudia lortzeko  
Steilas beti lanean.**

2015/05/29

